

PuLunPe

140. ZenBakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA





Carmen Erice Esain, Ostizko banatzailea

Pulunpe aldizkaria banatzen laguntzen duen Odietako biztanlea dugu Carmen Erice Esain. Bere laguntzarekin Pulunpe Ostiz herrira ailegatzen da, eta bertakoek eskualdeko euskaraz idatzitako aldizkaria ikusi eta irakurtzeko aukera daukate. Eskainitako laguntza hori probestuz, berarekin ari izan gara banaketaren eta euskararen egoeraren inguruan.

Noiz hasi zinen banatzen?

Ez dakit, aspaldi. Lehenago nire ilobak egiten zuen, baina atzeratua ibiltzen zen, eta nik hartu nuen, ia Pulunpe hasi zen momentutik bertatik. Eta jarraitzeko asmoa daukat, noski.

ikasten, euskara batua; baina zaila egiten zait.

Zer nahiago duzu zuk, euskalkia ala euskara batua?

Niri euskalkia gehiago gustatzen zait, agian hobea da euskara batua, hori esaten dute batzuek, baina niri zaila egiten zait, eta euskaldun zaharrek egiten duten euskara gustatzen zait.

Nola egiten duzu banaketa?

Ultzamako udaletxetik hartzen ditut Pulunpeak. Asteazkenetan laneko bilera daukat, eta orduan hartu eta asteazkenean bertan edo ostegunean banatzen ditut Ostitzen. Arratsalde bat hartu eta banatzen ditut.

Ostitzen egiten al da euskaraz?

Jende gutxi daki euskaraz Ostitzen. Orain gazteek bai, egiten dute, baina bestela oso gutxi egiten da. Esaten dute Pulunpe erdaraz eta euskaraz egin beharko litzatekeela, baina nik ez dut hori pentsatzen. Hala ere, argazkiak ikusten dituzte eta listo, nahiz eta ez irakurri argazkietan jendea ikustea gustatzen zaie.

Ultzaman egiten duzu lan beraz?

Ultzamako gizarte zerbitzuetan egiten dut lan, etxez etxe joaten naiz, zaharrei laguntza eskaintzea da gure lana. Orain euskarazko mintzapraktika egiteko aukera ona dut, zaintzen ditudan guztiek baitakite euskaraz, eta haiekin praktikatzen dut.

Zure partetik, kritikarik Pulunperi?

Nire ustez ongi dago.

Txikitan bazenekien euskaraz?

Bai, gurasoak euskaldun zaharrak dira, eta Ultzaman bizi nintzela euskaraz egiten genuen. Euskalkian egiten genuen, eta euskara batua ez dut ongi hitz egiten. Gero hiru urtez egon nintzen NAPI-n euskara

Zuk bisitatzen dituzun zaharrek irakurtzen al dute Pulunpe? Kritikarik badute?

Bai, euskaldun zaharrak dira, eta denek irakurtzen dute. Gustatzen zaizkie hemengo kontuak irakurtzea, argazkiak ikustea... Nik dakidanez ez dute kritikarik.

JAIO NINTZEN EME

Jaio nintzen eme
eta egin nintzen
--eginez noa--
emakume
zabuaren kulunketan eta
soka-saltoan
amaren takoiekin
ileko trentze-
kin
belauneko
urratuekin
bitxilorezko
pultserak egi-

nez eta sugandilei isatsa
etenez
panpinak jantziz,
orraztuz,
baina baita haiei ilea
moztuz eta begiak atereaz
ere

Eta honela
egunero egiten
egunero des egiten naiz



PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Eburne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi. **Emaila: pulunpe@gmail.com**

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan


Koordinatzaileak: **Iosu Martinez Urdaci eta Lur Gil Rey**

Argazkiak: Txurdan, Álvaro Martinez, AZALA; Rikardo AEK.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U - Lege gordailua: NA 721/93

2015KO APILAREN 2AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



AGENDA

ERAKUSKETA:

BUSTITAKO ISTORIOAK- UNICEF

Ura arnasten dugun airea bezain beharrezkoa du gizakiak. Hala ere, munduan 900 milioi pertsona inguruk ez dute edateko urik, eta etxe horietako erdiek ez dute saneamendu egokirik ere.

APIRILAK 10 18.30 IPUIN KONTALARIA (euskeraz) LANTZ

Oparia.

"Opari bat! Zer izango da? Izugarri gustatzen zaizkit opariak! Norentzat izango ote da? Utzidazu asmatzen. Opari hau oso handia da... elefante bat izango da.

Opari hau leuna da... orduan hodei bat da, dudarik gabe!

Baina, aldi berean, erregalu hau ezta bezain gozoa da, jirafa bat bezain altua eta txiste bat bezain farregarria... etorri eta denon artean irekiko dugu!"

APIRILAK 17 ABRIL 19.00 PELIKULA LARRAINTZAR

"12 años de esclavitud"

1850 urtean Salomon Northup-i, New York en

bizi zen musikari beltz bati, gertatutako istorio batean oinarrituta dago pelikula. Egun batean taberna batean drogatu eta baitzen dute; hurrengo egunen esklabo moduan saldu dutela konturatzen da.

APIRILAK 23 ABRIL LIBURUAREN EGUNA

Haurrentzako eskulan tailerrak liburutegian: markapaginak, komikiak...

6 urtetik baino gehiago dutenentzat ginkana liburuen artean...

APIRILAK 24 ABRIL 19.00 ONGARRI NATURALAK LARRAINTZAR

Bi saiostatik lehenengoa izango da hau. Bigarrena tailer praktikoagoa izango da. BIOFERTILIZANTES: Zolua nola funtzionatzen ulertuko dugu. Ikasiko dugu nola egin gauza naturalekin gure baratzen kallitatea hobetzeko. Hizlaria: Jesus Eslava. VITAVERIS produktuen ekoi-zea.

JUBILATUEN EGUNA. APIRILAK 18

OLERKIA

~ JOKE KANPO ~

Harmailak topera,
harat-honat baloia.

Batek epaileari:
"Zerri, urde kabroia"

Zalegoan denetarik,
otzana eta lehoia,
guztiak jakitun,
orok arrazoia.

Harmailak ziren topera,
badoazi mutu etxera
otzana eta lehoia.
Hauxe izan da
iganderoko paranoia.

Joxe Jabier Elizalde

VIII. TXIRRINDULARI MARTXA BASABURUAKO MENDIETAN BARNA

2015eko maiatzaren 17an, igandean, mendi txirrindulari martxa Jauntsaratsen eskolatik abiatuko da.

Basaburu eta Imozko Kirol Batzordeak antolatuta dute ekitaldia. Ez da lehiakorra. Jauntsaratsen hasiko da 40 kilometroko ibilbidearekin. Itsaso, Udabe, Beramendi, Ihaben, Gartzaron, Erbiti, Orokieta, Igoa, Arrarats eta Beruetetik igaroko da, berriro Jauntsaratsen amaitzeko.

INFORMAZIO GEHIAGO: 680 581 391 (LUIS)

AGRUPACIÓN ULTZAMAK ARGITU NAHI DUEN INFORMAZIOA:

AURREKO ALDIZKARIAN PUBLIKATU GENUENAREN ARABERA, ULTZAMAKO ALDERDI HONEK HURRENGOA ADIERAZI NAHI DU: AURREKONTUEN BOTAZIOAK EZ ZUEN 5 ETA 4KO EMAITZA IZAN, 4 ETA 2KOA BAIZIK. ALDIZKARI HONI EMATEN ZAIZKION LAGUNTZEN INGURUAN, BILDUREN PROPOSAMENA IKERTUKO ZUTELA ESAN ZUTEN, ETA HORRELA EGITEN DAUDE. ALDERDI HONEN ARABERA EZ DA EGIA BILDUK EGINDAKO 3 PROPOSAMENAK ATZERA BOTA ZIRELA, AURTENGO DIRU EKARPENA %20 GEHITU DELAKO.

ORAINDIK GARAIZ ZAUDETE BARRETERAPIA ETA BESARKADATERAPIA TAILERREAN IZENA EMATEKO.

DATAK: APIRILAK 17 ETA 19. MAIATZAK 3 ETA 8.

ORDUTEGIA: 18.00-20.00

LEKUA: BASABURUKO KULTUR ETXEAN
PREZIOA: 15€ (HOR BERTAN ORDAINDUKO DA BAINA DIRUA EZ DA IZANEN OZTOPOA)



PULUNPE: LEHEN ARGAZKI LEHIAKETA

Pulunpek argazki lehiaketa bat antolatu du aurtengo ekitaldirako.

Lehiakideak: Hemen bizi den edonor.

Argazkiak aurkezteko epea: MAIATZAREN 31A.

Sariak: 300, 200 eta 100 euroko hiru sari.

Lehiaketako arauak nahi dituenak eska ditzake helbide honetara, eta emailaz

igorriko dizkiogu: ametzake@gmail.com

TXIKIREN BAKARRIZKETA



Mil a Zien!
Baietz parrez lehertu!

Apirilak 26 (igandea)

18:30ean

Aizarotzen

BASABURUKO KULTUR BATZORDEA:



Basaburu
III. Argazki Lehiaketa
Gara: MARTZAREN 25TA MAIATZAREN 26TA
SARIAK:
1. Ible sariak bat
2. Ible sari bat
3. Gaste bat

Argazki: Basaburu Kultur Batzordea

“Guztiona bada, guztiondako da”

Bitxia da ikustea, batzuetan, gizarteak hartzen dituen bideak. Ulertezinak dira askotan urteen poderioz sortzen diren dinamikak. Kirolei begira jarrita, bitxia da nola batzuk masiboak diren eta beste batzuk askoz ere txikiagoak. Teorian behintzat, gizarteak lagundu beharko lituzke elkarlana eta jokatzeko modu garbiak sustatzen dituzten kirolak, baina badirudi horrek ez duela interesik sortzen. Eskualdeko 11 emakume errugbian aritzen dira “La Única” taldean. Arazo ekonomikoen gainetik, kirol honek adiskidetasuna eta anaitasuna sustatzen dituela, haizearen kontra bada ere.



NAHASIAN: Maika Iraizoz (Eltzaburu), Ana Ruiz (Etlain), Maite Irigoien (Etxaleku), Maialen Marturet (Lizaso), Lorea Basterretxea (Iraizotz), Maria Calahorra (Auz), Ixiar Brako (Lizaso), Maddi Brako (Lizaso), Ana Mariñelarena (Aritzu) eta Leire Etxeberria (Eltzaburu).

Baliteke inork gutxi albiste hori irakurtzea. Aurreko hilabeteko Pulunpen kirol atalean albiste txiki batean atera genuen “Bitartean, errugbian...” tituluarekin. Berri horretan salatzen zen nesken “La Única” errugbi taldearen egoera: milaka euro ordaintzen dute hareazko zelai bat erabiltzeagatik eta beraiek garbitu behar dute euri jasa datorrenean. Horretaz gain, Taxoareko zelai bat erabiltzea eskatu zuten, Nafarroako Gobernuak, PSNren laguntzarekin, “Osasuna legea” onartu zuenean. Ezetz esan zieten.

Arazuriko kiroldegia kanpoaldean kokatua dagoen zelaian jaso gaitu neska talde honek. Entrenamenduaren erdian harrapatu ditugunez, ez dugu denbora gehiegirik izan hitz egiteko, baina guztiakin batera solastu gara giro ederrean. Azken finean, zenbat eta gurekin denbora gehiago egon, orduan eta korrika gutxiago egin behar! Futbol talde bat egin ahalko lukete, eskualdeko 11 jokalaridaudelako. Eskualdean partidaren bat antolatu beharko genukeela esan dugu broma artean. Asteazkenetan eta ostiraletan entrenatzen dute, eta eskualdetik Iruñerrira joateko antolatzen dira: “Maika eta Maite gure taxi gidariak

dira”. Autoan telefonoa asko erabiltzen badute ere, ondo portatzen dira”, diote gidariek, barre artean. Aurtengo denboraldian 5 neska hasi dira, “oso pozik” gainera. Eskualdean aspalditik egin den lanak bere fruituak ematen ditu: “Larrainzarren hasi ginen errugbian, Baztan errugbi taldekoak ikastetxera etortzen ziren eta eskualdeko Oier eta Iñaki ere egoten ziren. “Bere garaian gustatu zitzaigun eta hemen jarraitu dugu”. Maika Iraizotzen kasua ere antzekoa da, Ultzaman hasi zen jolastean, “orain aritzen ez den Amaia Bera-sainek animatu ninduen probatzera. Gustatu eta hemen nago oraindik”.



Arazurin entrenatzen

Denboraldi ona

Taldean dauden 24 jokalarietatik 11 dira eskualdekoak. Aurten, gainera, bigarren postuan bukatu dute liga eta orain Ohore Mailara igotzeko aukera dute. Irabazteko aukerak ikusten dituzte, estatu mailan jokatzeko aukera hurbil dute, baina konplexua izan daiteke kanpoan ibiltzea. Denbora, ekonomia, ikasketak, familia, lagunak, lana... Oraindik konfirmatuta ez badago ere, Madrilen jokatu dute ziurrenik igoera fasea. Data ere esanguratsua da, apirilaren 11n, Larrainzarren Errugbi gaupasa egiten den egunean bertan. Barre artean proposatu dugu gaupasa beste aste-buru batera atzeratzea edota festara joan ordez, jendea haien partidak ikustera joatea. Larunbat horretan, ligaxka antzeko bat jokatu dute eta, irabaziz gero, igandean finala jokatu dute.



Aurten jokaturako partida baten irudia

Anaitasuna, oinarri

Kirol honek zer duen berezi galdetuta, lehenengo erantzuna “hirugarren denbora” izan da. Ezaguna denez, partidak bukatu ondoren, bi taldeetako partaideak garagardo batzuk hartu ohi dituzte, harremanak sustatzeko (helduen kasuan betiere). Serioago jarrita, laguntasuna sustatzen da errugbian, eta errespetu handia dago, adibidez, epailearekin. Taldeko kapitainak bakarrik hitz egin dezake harekin. Taldeko presidente den Oskar Zuñiga, “Makarra”ri galdera bera egin diogu eta erantzuna berdina izan da: anaitasuna eta jokatzeko modu garbiak sustatzen dira txiki-txikitik. Talde lana da garrantzitsuena, neskek eta mutilak batera jokatzeko dute zenbait kategoriatan... Jatorriz Ingalaterran sortutako kirol honek badu esaera polit bat: “Futbola basapiztiek jokatzen duten joko zintzoa da; errugbia, ordea, jende zintzoak jokatzen duen basapiztien jokia da”.



Txikientzat laguntzarik ez

Kirol txikia den heinean egoera ekonomiko zaila dute. 20.000 euro urtero zelaiaren alokairuagatik ordaindu eta batzuetan dutxatzeko ur berorik ez: “Galdararekin arazo handia izan dugu, bai. Kostata baina badirudi konpondu dugula”. Taxoareko zelaiaren erabilpena eskatu zutenean, “bazterrak nahasteko” helburua zuten: “Bage-nekien hasiera-hasieratik erantzun negatiboa emango zigutela; baina, halere, futbola ez den beste kirolen egoera azaleratzeko mugimendu interesgarria iruditu zitzaigun. Diru-laguntzak murriztu dizkigute eta Osasunari ez dakit zenbat milioi euro ematen diote”, dio Zuñigak. “Guztiona bada, guztiondako da” kanpainak nafar guztion diruarekin ordaindutako instalazioak erabiltzea eskatzen zuen, eta ezetz erantzun zieten.

La Unica Rugby Taldea Neskak

PREMIOS:

- Fin de semana en casa rural Arburu para dos personas
- Noche en Hotel Soran Etxea a media pensión para dos personas
- Noche en refugio Pineta a media pensión para dos personas
- Spa para dos personas en Castillo de Gorraiz
- Cena para dos personas en Restaurante Orgi
- Lote de productos Ecológicos
- Lote de productos de La Unica RT

Arturu Refugio Soran Etxea ORGI Pineta

Este boleto incluye el abono para la temporada

Neska taldearen zozketa

Laguntza ekonomiko bat bilatu nahian, neska taldeak zozketa bat antolatu du. Holakoetan gertatzen den bezala, hemendik hona joan dira laguntza eskatzen eta sari ederrak lortu dituzte! Maiatzaren 23ra arte txartelak erosteko aukera dago. Eskualdeko zenbait tabernek lagundu ditu, Lizasoko Orgi jatetxea eta Auzakoa, kasu. “Gure ideia izan da talderako dirua ateratzea; bidaia ordaintzeko, batez ere, ikasle asko dago taldean eta zozketa honen bitartez lortzen badugu laguntza txiki bat, ba primeran!”

Aldaketa feministarantz pauso sendoak ematen

Martxo hilabete indartsua da borroka feministarako, martxoaren 8a data garrantzitsua baita emakumeen ahalduntzean. Hala ere, martxoaren 9tik aurrera ere emakumeen eguna izateko deia egin zuen mugimendu feministak, eta gurean ere, martxoaren 8aren aurretik eta geroago ere, berdintasuna ardatz duten ekitaldiak izan ditugu.

Ekitaldi guztiek jendearen parte-hartze handia izan dute, eta borrokan aurrera egiteko gogoak piztu dizkiela dio Josune Antxo mankomunitateko berdintasun teknikariak. Argazki erakusketak. Larraintzarren genero ikuspegia lantzen duten bi argazki erakusketak izan ditugu. Alexandra Gapihan artista ezagunak bere obra gurera ekarri zuen, salbuespen bat eginez bere erakusketetan, galeria ezagunetan aurkezten ohi baitu bere lana. Bestetik, Iraizozko Begoña Arangoa eta Marisol Villabona mendizaleen argazkiak ere izan genituen, Cervino mendiaren itzulian ingurukoak. Jauntsarasko Apeztegi berrin, bestalde, Basandereok elkarteak martxoaren 8arekin lotutako kartelak bildu zituzten erakusketak batean.

Hitzaldiak: Bilgune feministak bere nazio batzarren ondorioak aurkeztu zituen Aizarotzen, besteak beste, bi gairen inguruan, abortuaren aurkako borrokaren fruituak edo mikromatxismoaren inguruko gogoetak. Bestalde, gaixotasuna genero ikuspegitik ere jorratu zuten beste hitzaldi batean, bular minbiziari aurre egiteko indarra erakusten duen dokumental bat proiektatu zuten eta gainontzeko gaixotasunei aurre egin beharraz mintzatu ziren. Itziar Zigaren idazlearen hitzaldia falta da oraindik egiteko, transfeminismoaren inguruan.

Bestelako ekimenak: Martxoak 8ko manifestazioarako deia egin zuten emakumeek egun bat lehenago, egun osoko egitarauarekin: kotxe-karabana,



Zirkus Blai ikuskizuneko Ainhoa Juaniz, Iruñean. E.K

poteoa, afaria... eta igandean Iruñeko manifestazio handiarekin bat egin zuten. Antzerkia ere izan dugu gurean, Zirkus Blai, emakume gazteez osaturiko taldeak Neskak gara, eta zer? Ikuskizuna eskaini baitzuen Larraintzarko Bentan; oso arrakatsua izan zen, jendez lepo baitzegoen aretoa.

Emakumeen mundu martxa: Aurtengo borroka feministak Kurdistani begira egon da, bai Euskal herrian eta baita kanpoan ere. Lehenik, bi emakume ekintzaile kurdu izan genituen hitzaldi bira ematen, Rojavako iraultza, Estatu islamikoaren aurkako erresistentzia eta feminismotik egiten duten nazio eraikuntzari buruz solas egiten. Geroago, berriz, emakumeen mundu martxa Kurdistandik hasi zen, Europa osoa zeharkatuko duena urriaren 28an Portugalgo Koinbran amaiera izan arte. Euskal Herritik irailaren 28tik urriaren 4ra igaroko da.

nean.

Egunero borrokatzen diren, haien atzean joaten diren eta bidaia egin duten emakume ikusezinak zoriondu nahi ditugu. Zorionak nekerik gabe, esker onik gabe, kobratu gabe, laguntzarik gabe borrokatzen direnentzat, haiek ere aldaketak sortzen ari dira. Esker mila gaur egun ditugun aukerak posible egin dituzten borrokatzaile guztiei.

Emakumeek gizonek bezalako eskubide eta aukera parekideak izan behar dituzte bai hezkuntza mailan, bai lan mailan, bai familiak osatzeko mailan bai erabaki politiko eta ekonomikoetan parte hartzeko. Emakume guztiak, eskubide guztiak, egunero”.

Atezko emakumeen aldarria

Martxoaren 8a zela eta, bailara horretako herri guztietatik zetozen emakume talde bat bildu zen bazkaria egiteko, Markalaingo Arteta jatetxean. Jan eta edan ondoren, aurtengo oparia irekitzeko momentua ailegatu zen: lore bat eta behean irakurgai duzun testua zeuden kutxaren barruan. Bertaratu ziren bost emakumek irakurri zuten.

“Atezko emakumeok aurrera egin dezagun Benetako berdintasuna eta emakume guztiontzat giza-eskubideak aldarrikatzen ditugu.

Oraindik egiteko asko dago. Ez gara bizi berdintasu-

19. Korrika, guztietan jendetsuena



Urepeletik Bilbora egindako bide luzean, gure eskualdetik pasa zen Korrika martxoaren 20an, arratsaldeko hiruretatik bostak arte. Ultzamako Bentatik laino artean sartu eta Markalaindik euripean atera bazen ere, harrera beroa egin zitzaion euskararen aldeko ekimen honi. Arraitzen bildu ziren euskaltzaleak Korrikaren esperoan: eguerdian trikitilariak girotzen hasi

ziren, bertan Ultzamako ikasleen kilometroa zegoen eta haien gurasoena ere. Bukatu bezain pronto, “Korri, Salto eta Brinko” pailazoen emanaldia egon zen eta 5etan txokolatada. Bestetik, Atezkoak Aroztegin bildu ziren Xahutegi elkartearen merendua hartzera, txokolata jatera... musikaz lagunduta. Mankomunitateko euskara teknikariaren balorazioa ona izan da, eguraldi txarraren gainera jendearen parte-hartzea handia izan zelako, haurrei jai eguna egokitu zitzaielako eta Korrika batzordearen lana oso polita izan delako.

Korrikako arduradunek Bilbon egindako agerpenean Korrika, “historiako jendetsuena” izan dela adierazi zuten. “Pozez gainezka eta guztiz hunkituta” agertu ziren euskararen aldeko lasterketaren antolatzaileak. Horretaz gain, euskararen normalizazioa auzi politikoa dela esan zuten, eta, ondorioz, Euskal Herriko administrazio guztiak gonbidatu zituzten, “hizkuntza politika egokien bidez, herritarren euskaraz bizitzeko nahia lehenbailehen bidera dezaten”.

Biztanle eta txirrindulariendako elkargunea Olaguen



Inaugurazioaren irudia.

Anue Nafarroako mapan kokatzea eragingo du zentro honek”, honela dio Raul Pascual Anueko alkateak. Izan ere, zonaldeko eta kanpoko txirrindulariendako albiste erakargarria da BTT (mendi txirrindula) zentroaren irekiera, inguruko ibilbideen informazioa eskainiko duena eta baita zonaldearen inguruko ere.

Euriak kalteak eragin ditu Oskotz eta Arrarasko bideetan

Negua eurite eta elurteekin utzi dugu atzean, eta ondorio nabarmenak utzi ditu eskualdean. Arrazok eragin ditu Oskotz eta Arraratsen mendira igotzen diren pistetan, urak luiziak eraginda. Arraratsen zulo handi bat sortu zen herritik Otsola alde-ra doan pistan. Bidegurutze batean, malda handieneko pista erori, eta bidea guztiz itxita gelditu zen. Zuloa ora-

BTT zentroa ez da berrikuntza bakarra, ostalua ere ireki baitute leku berean. Anue Bici-rik izena du ostalua berririk, eta Anueko biztanleendako elkargune izatea da honen asmoa, herrietako elkarteaz gain, herri ezberdinetako biztanleek bat egin dezaten bertan.

Martxoaren 16ean egin zuten ostalua irekitze publikoa, eta funtzionamenduan dago jada. Juan Muñoz iruindarrari egokitu zaio ostalua kudeaketa, eta BTT zentroa ere dagokion arren, ireki gabe dago oraindik, enpresa baten esku utziko baitute, txirrindularitzari zuzendutako zerbitzu profesionala izan dezan. Asistentzia gune bat izateaz gain, jada 100 kilometro baino gehiagoko bide-sareari zuzena ateratzea da helburua, informazioa eta ibilbide gidatuak eskainiz.

Anue Bici-rik ostalua irekitze orduko goizeko 11etatik gaueko 22etara izanen da, eta asteburuetan 9etatik aurrera. Gosariak, hamaiketakoak, bazkariak, afariak... dituzte eskaintzan, asteburuetan ere menu ezberdinarekin, astez aste aldatuko dutena. Juan Muñoz sukaldaritza ikasia da, eta beraz, ostaluko sukaldaria; berarekin batera emaztea eta semea arituko dira lanean.

indik ere handiago bihurtzen ahal zela ikusirik bertan gordea zuten egurra kamioiz ateratzea erabaki zuten, eta herritik gertuagoko gune batera eraman.

Oskotzen, berriz, ur-biltegitik mendian gora egiten duen pistaren zati bat guztiz erori zen. Zonaldeko abeltzainei arazoak sortu zizkion gertaerak, Iker Bakaikoa abeltzainak “ardiengana iritsi ezinik” geratu zirela zioen, “pistatik ezin ginelako kotxez joan”. Herritarrek konpondu zuten hurrengo egunean, ezinbesteko baitzuten pistatik igarotzea.

la 20 urteren ondoren, oraindik moduluetan

Larraintzako eskolara bisita egin zuten nafar parlamentarioek



1996. urtean “gehenez 4 urterako” eraiki zituzten moduluak; 2015. urtean gaude eta oraindik Ultzamako ikasleak moduluetan ikasi beharra. Martxoaren 25ean Nafarroako Parlamentuko alderdi politikoen talde batek Obispo Irurita

eskola bisitatu zuen. Holakoetan ohikoa den bezala, eskolako egoerarekin sentsibilizatu ziren: “Moduluak gain, berogailu eta argindar sistemek duten arazoei buruz hitz egin genien”, dio Luis Lizarribar zuzendariak, “argindar sis-

temak, adibidez, ez du gaur egungo legedia betetzen”. Ultzamako Udalak diruz laguntzen badu ere, ez da nahikoa. Aurreko otsailean Iribas Kontseilariarekin bildu ziren irtenbide bat eskatzen eta orain etorri zaie politikoen bisita; halere, berandu den susmoa dute eskolan: “Aro baten bukaeran gaude. Hauteskundeak hementxe ditugu eta hurrengo legegaldia hasten denean berriro eskaerekin hasi beharko dugu, parlamentarioek azkenengo osoko bilkuran aipamen bat sartzen saia-

tuko badira ere, une txarrean heldu delako bisita hau”, dio Lizarribarrek.

Eskolaren 50. urteurrena

Obispo Irurita ikas-tetxeak 50 urte betetzen ditu aurten. Guraso elkartearen eta irakaslearen artean programazio polita prestatzen hasi dira, eta ekimenak heldu den ikasturtean gorpuztuko dira. Hilabetero zerbait antolatzeari pentsatu dute, eta horretarako, eskolatik pasa den ikasle, irakasle eta bailarako jendea animatzen dute antolaketan parte hartzera.

N-121 errepidea konponduko da

Eskualdeko zenbait herritan egingo dira lanak




Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentuak N-121-A errepideko segurtasuna hobetzeko neurri batzuk abian jarriko ditu berehala bi milioi euro inguruko aurrekontuarekin. Etulain inguruan errepidea zabalduko da, Burutainen zoruaren asentua konponduko da, buztin plastikoa inguru hori sarri samar hondoratzea ekartzen baitu, eta Lizasoko bidegurutzeari hobetzea aztertzen ari dira, plataforma handituz eta erdialdeko errei bat sortuz sartu-irteteko biraketak egiteko. 297.807 euroko kostua izanen du azken lan honek.

Bideko beste zati batzuetan hobekuntzak egingo dira: Ezkaba-Sorauren zatian, Olabeko saihesbidean eta Enderitzen, Burutainen eta Etulainen, bidegurutzak aldatzea proposatzen da. Gainera, Lantzen, T formako bidegurutze bat aurreikusten da (ezkeralderako biraketak egiteko, eta barnealdeko glorieta txiki bat sortuko zen norabide-aldaketetarako). Arraizko Bentetako saihesbidea hobetzea ere espero da. Errepide osoan zehar dauden herrietan aldaketak aurreikusten badira ere, hauek dira gure eskualdean aurreikusten diren lanak.

Semaforoak Tuneletan?

Zarraluki kontseilariak egindako prentsurrekoan Belateko tunelei buruz hitz egin zuen; bertan azaldu zen Nafarroako Gobernuak Belateko tuneletan semaforoak jarri nahi zituela. Hurrengo egunerako Gobernutik bertatik ezetz esan eta 2019. urtea baino lehen 150 euroko aurrekontua izan dezaketen obren alde egin zuten: “Bikoizketaren alde egiten du Nafarroako Gobernuak”, deklaratu zuen Sanchez de Muniain bozeramaileak.



Kimatze ikastaro arrakastatsua egin da Basaburuan eta Ultzaman



Beramendira hurbildu ginen kimatze ikastaroaren nondik norakoak ezagutzera. Hamabost bat lagun zeuden bertan Nikasio Dorainen aholkuak jarraitzen. Beramendiko Inmak bere zuhaitzak eskaini zituen

kimatze klase praktiko batzuk osatzeko: “Ultzaman eta Basaburuan egin dugu ikastarotxo hau. Oso gustura gaude, lan pixka bat egiten eta ikasten, jendeak ikasi, ikusi... nahi du”.

Doraik zuhaitzak ki-

matzeko ikastaroa duela 20 bat urte jaso zuen: “jakintza hori ez da nahikoa, praktika asko behar da”. Horretarako Iraizotzen sagardia du Nikasiok eta Berueten sagardoa egiten dute.

Bisita turistikoa zirudien, giro ederrean, adarrak mozten eta sagar mota desberdinei buruz hitz egiten hasi ginen: “Oso gutxi ematen dute zuhaitz hauek, tratamendurik ez diet ematen eta. Golden motatakoak dira eta ez dute asko ematen; halere, batzuetan asko ematen dute...” dio Inmak.

Martxoaren hasieran gendenez, sagarren garaia-ri buruz hasi ginen: “Rei-

neta motak hemen ez du ematen, Zuriak ezta ere, “malamente”. “Rejilla” esaten dena da hemen hobere ematen duena. Errexil aldetik heldu zelako deitzen diote horrela, baina hemengo betiko sagarra da, guk “azaro sagarra” deitzen dioguna. Santiago sagarra ere badugu, goiztiarragoa dena, uztaillekoa. Hemen berandua go ematen badu ere, Doneztebe aldean agudoago etortzen da”, zioten batzuek eta besteek.

Adarrak ekoizpenean jartzeko teknika ezberdinei buruz hitz egiten eta lepoei eta puntei buruz hitz egiten utzi genituen. Hurrengo bat arte!

Nafarroan, euskararen egoerari begira

ARITZ BEGINO ETXARRI: ETB IKUSTEKO ZAILTASUNAK



Nafarroan bada telebista pribatu bat. Pribatua da baina Nafarroako Gobernuak diruz ederki laguntzen du. 1.000.000 eta 2.000.000 euro arteko laguntza jasotzen du urtero. Bitartean euskaldunok ez dugu

telebistarik. Eta CAVe ko telebista hartzekoan oztopo eta baimenik ez. Mundu guziko telebistak hartzen ahal diren momentu honetan, gureak direnak hartzea debeku. Zergatik ari da gertatzen hau?

Egia esateko, ez zait oso ongi iruditzen hain gurea den zerbait debekatzea, nire ustez kultura eta politika nahasten ari dira.



Esan Erran irratia, berritze lanetan

Ohiko programazioa maitatzen itzuliko da



Aurrera hobeki joateko, batzuetan atzera pauso txiki bat eman behar. Gutxi gorabehera horrela dio esamoldeak. Gure kasuan hori gertatzea espero dugu. Apirillean irratia

irratia programazioa etetea erabaki dugu eta maitatzen indarberrituak itzultzea dugu helburu. Ametza elkarrekin kudeatzen dituzte Pulunpe aldizkaria eta Esan Erran irratia, eta

kultur elkarte herrikoia da, nahiz eta bi langile izan. Jende askoren lan boluntarioari esker ateratzen ditugu aurrera lanak. Heldu diren aste hauetan, guztion ilusioa piztu nahian, irratia berritu eta moldatuko dugu eskualdean gure presentzia indarberritzeko. Irratiaren emisio kalitatea hobetuko dugu zonalde guztiko etxeetan garbi entzuteko gure seinalea. Horretaz gain, internet bidezko emisioa jarri nahi dugu, mundu

osoan entzuteko irratia! Ordenagailu bidez eta telefono mugikorren bidez entzutea ere nahi dugu. Horregatik eskatzen dugu zure laguntza: Zer hobetuko zenuke Esan Erran irratian? Ze irratsaio entzutea gustatuko litzaizuke? Zure etxean ondo entzuten al da irratia?

Idatzi pulunpe@gmail.com helbidera edota deitu 649676764 telefono zenbakira.

ENTZUN ARTE!

Milesker Koldo



Koldo Agarraberesek eta Antonio Gritonek eskuartean zeukaten proiektua azaldu zidatenean lehen aldiz, txundituta geratu nintzen; gure eskualdean inoiz egindako arte ikuskizunik liluragarri eta basatia zirudien. Eta hala izan zen. Emari 09-ri esker gure eskualdea besta bat bihurtu zen bi hilabetez, eta, tarte honetan arte garaikidea, mitologia eta natura uztartu ziren. Pentsaezina zen

munduko txoko ezberdinetatik hainbertze motatako artista hurbiltzea. Kantari, musikari, ipuin kontalaria, dantzari eta kirolarien artean, etorritako artista garaikideak eskualdetik barreiatu ziren artelanak egitera, ondoren sortutakoa Mariri, Ama Lurrari eskaintzeko.

Koldok erakutsitako dinamizatzeko gaitasun ikaragarri hori, zeukan izpiritu kritikoa eta artearekiko sentitzen zuen pasio neurtezina, ikasgai eder bat izan ziren niretako. Bertze mundu bat posible dela sineste horrek, baieztapena. Emari 09 opari handiegia.

Horrelako pertsona asko behar ditugu gure landa mundu hau bertze begi batzuekin ikusten ikasteko. Agur eta ohore bihotz bihotzetik Koldo. Bidea bilatzen jarraituko dugu.

ARANTXA

Duintasunaren martxak



Aurreko ostiralean lau lagun Madrid aldera abiatu ginen bigarren urtez Duintasun martxaren manifestazioan parte hartzeko helburuz. Egia esateko, gure helburu bakarra ez zen hori baizik eta berriro ere praktikan jartzea herri honetan horren barneratuta dagoen martxa eta borrokaren binomioa. Gertatzen dena da jada daukagun adinarekin

uste dudala ez ginela ez bata ez bestera iritsi, baina tira, gure izpiritu hori zen, ez al da hori garrantzitsuen? Iaz bezalaxe. Helmuga: Carabanchel, hori baita beti gure etxea Madril planetara joaten garenean pertsona, esperientzia eta leku berriak ikusi, ikasi eta gozatzeko grinez.

Larunbatean egun osoa ibili ginen martxan, goizean Carabancheleko mu-

gimendu eta eragile ezberdinetako kideekin elkartu, nahastu eta oso momento hunkigarria izan zen iaz eta aurten ere etorbide luze horretatik ikustea nola ailegatzan den Hego-mendebaldeko zutabea, Extremaduratik abiatuta asteak oinez daramaten horiek, bere indar, amorru eta ilusio guztiarekin Madrilera iristen direnak.

Erraza da jende horrekin nahastea eta bat egitea, erraza haien ondoan ibiltzea, erraza egoera zaila pairatzen ari direla antzematea. Gure herritik oso urrun bizi badira ere, bere kultura, izaera eta bizimodu oso bestelakoak badira ere, bere etorkizuna eta gurea komuna ez baizik

eta eraldaketa sozio politikoaren bidean paraleloak izatea nahi izanagatik ere... Aurtengo duintasunaren martxaren manifestua irakurtzea besterik ez dago ikusteko herri ezberdinetan egun ezkerak dituen erronkak berberak direla: sistemaren erroetara jo eta oinarritik aldatu, askatasuna, demokrazia, lan banaketa, zerbitzu publikoak oinarri patriarkatua gainditu eta gizon eta emakume askez osatutako jendar-tea eraikitzea.

Eta manifaren ondoren, noski, piztiazen mendekua: furgonak, txakurrak... Gran Viaren zabaltasunean ejertzioa zirudien... Gure ustez, marmotaren eguna. AINARA

HERRI KIROLAK



Martxoan herri kirol jokoetako txapelketak izan dira, eta 29an finala izan zen Etxarri Aranzan. Ultzamako taldeak kadete mailan bi talde finalera pasatzea lortu zuen; kadete mailako sokatira finalen bigarren izan zen, eta proba konbinatuan laugarren.

Proba konbinatuan, Kadete mailan Berriozar izan zen txapeladun, Basaburua bigarren, Andra Mari hirugarren

eta Ultzama laugarren. Haur mailan Andra Mari izan zen txapeladun, Baztango Basaburua bigarren, Araxes hirugarren eta Leziza laugarren. Kimu mailan, azkenik, Iñigo Aritza izan zen txapeladun, Beriain, Andra Mari eta Araxesen aurretik.

Sokatiran txapelatik gertu geratu zen Ultzamako kadete taldea. Haur mailako finalean Andra Mari izan zen txapeladun, Putterri bigarren, Berriozar hirugarren eta Iñigo Aritza laugarren. Kadete mailan, berriz, Berriozar izan da txapeladun, bost jardunaldietan nagusitu ondotik. Ultzama izan zen bigarren, Andra Mari hirugarren, Iñigo Aritza laugarren eta Araxes bosgarren.

Iritzia

Proposamena



Anjel Lertxundi

Politikaren estolderietako zikinari ustelkeria deitzea nahiko neutrala iruditu zait beti. Batere letxe mindurik gabea. Baina ez nuen ordezkorik aurkitzen. Aitasantuak piztu dit kandelak: La corruzione puzza (Ustelkeriak kirastu egiten du) esan berri du Napolin —gurean bezala, italiaraz ere puzza uzterra da, kirats gaiztoa dariona

bereiziki—, eta putza proposatu nahi dizuet nik Frantziskoren bedeinkapenarekin. «Gobernuak putza babesten du. Halako udaletxean putza da nagusi».

Putz gustagarri bakarra norberak botatakoa omen, politikarien praktikak ondo ilustratzen duen auzia da: oso egiten zaizkie atseginak beren alderdiko sabel

haizeen emaitza ustelak; arerioenak, ordea, zipitzik ere gustatzen ez.

Irakurle, nekez aurkituko duzu azken putz baino espresio hoberik ustelkeriaren filosofia laburbiltzeko: ez gelditu atzean, espabilatu, arpilatu eta sakeatu dirua, atzetik datorrenak usainduko baitu hire ustelkeriaren grazia.



Irudi batean

Basoak txoriz eta zizaz beterik



Hilabete hotzenetan ere basoek bizi jarduera handia dute. Zizen garai gorena udazkena omen da, eta txorien mugimendu handienekoa udaberria. Hala ere, neguaren azken parteaketa udaberriaren hasiera hotzak txoriak eta zizak ikusteko aukera aparta eskaintzen dute; ez edozein ziza, noski, *Hygrophorus marzuolus*, elur ezkoa edo elurretako ziza baizik.

Basoen bizitza ezagutzeko bisita gidatuak antolatzen ditu Lizasoko Garrapo Taldeak. Urteak daramatza Orgi Basoaren kudeaketan, baina gainontzeko basoetan ere jarduerak antolatzen dituzte. Gehienak onddoei lotutakoak izaten dira, udazken partean, baina negu bukaeran ere bi motatako bisitak egiten dituzte: marzuolus edo elurretako zizaren bila joateko ateraldiak, eta txorien jarduera ikustekoak. Pulunpe horietako batean egon da.

Javier Gomez eta Amaia Esparza iruindarrek, Edurne Gerendiain lizasoarrak eta Kontxi Iraizotz gorrondarrak osatzen dute Garrapo Taldea. Ingurugiroan, basoen kudeaketan eta mikologian adituak dira, eta eduki handiko bisitak eskaintzen dituzte; txorien inguruan, gainera, Gorka Gorospe ornitologo ezagunaren laguntza izaten dute. Javier Gomez mikologoak gidatu ditu elurretako zizaren ateraldiak.

Arrakasta izaten dute udazkeneko bisitek, baina baita negukoek ere. Elurretako ziza ez da erreza aurkitzen, eta ez da batere ezaguna; horregatik, Gomezen argibideak eta laguntza ezinbestekoak izaten dira. Ez da Ultzaman soilik ateratzen den ziza, baina hemen egiten dira marzuolus zizaren inguruko bisita gidatu baka-



rrak. Bartzelonatik eta Madrildik ere erakartzen du jendea, eta Euskal Herri osotik ere.

Bisita gidatua Javier Gomezekin

Mikologoak azalpen teknikoak eman ondoren Alkotz iparraldeko basora goaz autoz, pistan kilometro batzuk egin ondoren bisita hasteko. Irundik, Lasartetik eta Iruñeatik etorri da jendea, gehienak ziza bila askotan joaten direnak. Saskia eta labana prest izateaz gain, begiak ere erne edukitzea ezinbestekoa da, zaila baita, oso zaila marzuolus ziza ikustea. Iluna da, eta lurrean dagoen hosto pilaren artean ongi ezkututzen den horietakoa; makila, beraz, lagun ona da hostoak mugitu eta elurretako ziza agertzeko.

Pago ederren artean eta erreka inguruetan ateratzen dira gehien, eta han aurkitu dituzte bisitariak ziza franko. Lehena aurkitzean poza ikaragarria da, maratoi bat irabaztearen adinakoa, eta hurrengo zizak aurkitzean ere mantentzen da poz hori, bi ziza aurkitzea bi maratoi irabaztea bezalakoa baita.

Ziza gehienek lur epel eta hezea behar dute ugaltzeko, euria egin ondoren ateratzen dira. Marzuolus ziza, berriz, giro hotzarekin ateratzen da, baita elurra dagoenean ere. Edurne Gerendian lizasoarrak, gainera, elur artean kasik errazago ikus daitekeela dio, txapela beltza baitute, eta kontrastea egiten du. Izenak dioten bezala, martxoan ateratzen da bereziki, elurra egin ondoren. Jateko ona da, eta sukaldatu gabe ere jan daiteke.

Bi ordu inguru basoan ibili ondoren, denak elkartu eta zenbaketa egiten da. 30-40 ziza inguru lortzen dituzte guztira, baina esperientzia ona da, Edurne Gerendiainek dioten bezala, "asko eta erraz lortzen direnean ez du graziaz, politagoa da marzuolus bila joatea". Bisita ondoren hartutakoak bazkarian jateko aukera ere eskaintzen dute, goizari amaiera polita emateko.



Elurretako ziza:

Deskribapena: Ziza beltzaxka. Ori zurixkak, bereziak eta lodiak. Hanka zilindriko lidia. Gordinean oso zapore eta usain atseginak.

Non eta noiz: Pagadi eta hariztietan, otsailaren bukaeratik apirila erdira arte.

Jangarritasuna: jangarria, goxo-goxoa. Gordinik jan daiteke

Orgin txoriak bistara




Garai egokia da hau txoriak ikusteko. Bi arrazoi nagusi daude horretarako: lehenengoa, txoriek mugimendu asko egiten dituztela orain, habiak egiten ari baitira. Bigarrena, basoak historik gabe daudela eta errazago dela txoriak ikusi eta identifikatzea, gainera, basoetako txoriak txikiak izanik, aukera ona da ikusteko. Horregatik, Garrapo Taldeak, bisita gidatuak antolatzen ditu Orgin Gorka Gorospe ornitologo ezagunarekin.

Behatoki bat ere badago basoan, eta handik oso ongi ikusten dira txoriak. Edurne Gerendiainek, hala ere, txoriak identifikatzen ikasi behar dela dio: "ez da aski prismaticoekin begiratzeak; begi hutsez ikusi behar dira lehenbizik, eta horretarako kantuak ezagutu behar dira, espezie

bakoitza entzumenarekin ezagutzeko". Hori da Gorospek erakusten duena, askotan zaila baita espezie guztiak ikustea, baina bakoitzaren kantua entzutean, nahiz eta momentuan ez ikusi, geroago ikustea errazagoa da. "Isiltasuna oso garrantzitsua da", dio Gerendiainek.

Basoko txoriek oso kolore biziak dituzte, oso politak dira, eta garai honetan etxeetara ere hurbiltzen dira, kabi eta janari bila. Horregatik ohikoa da etxeko leiho zein balkoietan jarriak ikustea. Beste asko, berriz, basotik ez dira asko ateratzen. Hauek dira garai honetan ikus daitezkeen txoriak eskualdean: Birigarroa, Zozoa, Txepetxa, Garrapoa, Txantxangorria, Amilotsa, Okil Berdea, Okil Txikia, Okil Beltza, Gailupa, Miru Beltza, Miru Gorria...

KONTAKTUA: Bisita gidatueterako garrapo@garrapo.com edo 948305300 eta 620955454 telefonoak



Ignazio Iraizotz Goldaratz, Gerendiango Ormitzeko misiolaria

Joan den udazkenean, Gerendiango Ormitzeko nagusia hil zorian zen, esperantzarik gabe. Esteban Iraizotz zen horrela zegoena eta despeditzera etorri zen Ignazio, bere anaia, Perutik. Aspaldiko urteetan han dugu ultzamar peto-peto hau. 41 urte Perun lanean, baina bihotzean du gure zokoa, ez du atzertzeko, ez horixe. Hau dugu Peruko oihan mortuan, lan ikaragarria egin duen misiolaria.



Batxilerra bukatu eta zer egin zenuen?

Ba, erabaki nuen dominiko egin behar nuela, bokazioa banuela uste nuen eta gero, jakina, hala gertatu zen. Badakizu, hor nituen buruan misioetako hainbat kontu eta...nik misioetarako gogoia nuen.

Eta ikasketak?

Lehen urtea, nobizatuan, gero hiru urte filosofia eta bost teologia. Salamancako Pontifize Unibertsitatean atera genuen lizentzia. Hori bai, ikasketetan altzina egin ahala, misioetara joateko gogoia bizkortuz joan zitzaidan.

Eta meza berria?

Bai, 1973ko Pazkotan meza berria, eta urte berreko urriaren 22an, Perura joan nintzen, barkuz. Hegazkinez ere joan gintezkeen baina gauza franko eraman behar izaten zen hango jendea-ri laguntzeko. Bartzelonako portutik atera eta 22 egun pasa ondoren iritsi ginen Callaora, Panamako kanala pasatu ondoren. Bidaia oso interesgarria, Ameriketako portuetan geldialdiak eginez.

Eta misioetara berehala?

Bai, misio eremua hego-ekialdean (sureste) genuen. Madre de Dios eta Urubamba ugaldeak biltzen dute baso ikaragarria. Hiru departamendu dira leku horretan: Madre de Dios eta bere hiriburua Maldonado; Cuzco departamenduko parte bat, Urubamba ugaldean dagoena, eta hirugarrena, Ucayali deitua, Pucallpa bere hiriburuarekin. Ni orain bertan Ucayalin ari naiz lanean.

Eta zu non ari zara lanean, hiruburuan, Pucallpan?

Ez, ez, ni beti basoan ari izan naiz lanean, beti basoan. Hasieran Madre de Dios ugaldeko bazterretan. Eta azken 22 urtean Sepahuan ari naiz.

Toki basak, jende gutxi bizi den tokiak.

Bai, hala da. Ni iritsi nintzenean mila lagunetara ez zen iristen. Orain 5.000 lagun biziko gara. Han ugalde bazterretan dira herri guziak, toki batetik bestera beti barkuz egin behar izaten dugu.

Ignacio hamabi urteak artio herrian eskolan. Eta gero zerbait erabaki behar: estudiantoan segitu, lanean hasi...

Bai, dudarik ez nuen izan, eta ikasketekin segitu beharra zegoen. Aurrerabiako (Villava) Dominikoetan batxilerra egitera joan nintzen. Misioetarako zuzendua zegoen kolegio hori, baina, tori, nork jakin orduan gerora zer gertatuko zen?

Eta bertan batxilerra bukatu zenuen.

Ez, Aurrerabi.an hiru urte besterik ez nituen egin eta hurrengo hiru urteak Leona joan ginen. *Virgen del Camino* deitzen den herri batera.

Nola?

Bai, bai, horrela deitzen da, *Virgen del Camino*. Santutegi bat ere badu, eta horrek ere *Virgen del Camino* du izena, Leondik sei bat kilometrotara dago. Santiago bidea ere bertatik pasatzen da.

Indigena ezezagunak



Ignazio eta Torralba misiolariak, "shara" buruzagi batekin

Herri indigenekin aritu zara lanean. Baina inoiz ezagutu duzu erabat mundu honetatik aparte bizi izan den giza talderik?

Pentsa, Nafarroatik hara joan eta inoiz imajinatu ere ez nuen jendea ezagutu nuen hasieratik, erabat atzeratuak, eskolarik gabe, deus gabe. Oihanean bertako jendearekin lanean, izugarria, aizu, izugarria. Baina, misio lekuz aldatu nintzenean izan zen politena.

Zer duzu bada hori?

Bai, luze mintza naiteke herri ttiki horiekin bizi izandako kontuez. Baina, beharbada, gertaera bitxiak, harrigarriak, zera izan zen: ikasi genuen Urubamba, Madre de Dios eta Entranbasaguas ugaldeetako jaiotza inguruetan bazela inorekin harremanik ez zuen giza talde handi bat. Guk abionetatik sumatu genituen. Eta nik ilusio handia nuen haiekin harremanetan jartzeko. Baina nirekin zebiltzan indigenek ez zuten deus horrelakorik nahi, altzinetik elkarrekin borrokan ibilitakoak baitziren. Jende honekin harremanetan jartzea esperientzia izugarri polita izan zen, pelikula batekoa dirudi eta. Baina, ez ginen gu haiengana hurbildu, haiek izan ziren guregana etorri zirenak.

Eta oihuka etorri ziren herri batera: *shara, shara,*

shara. Gero jakin genuen ona, ona, ona, erran nahi zuela hitz honek. Eta herri horretako bizilagun batzuekin nire bila etorri ziren denak.

Ez zinen, beraz, zu herri horretan?

Ez, ez, ni beste herri batean nengoen, bi eguneko bidean nengoen, kanoa motordunez bi egun behar ziren ni nengoen herrira iristeko. Pentsa oihan ikaragarri haiek zein hutsak dauden. Izugarriko lur zabalak, Espainia bezain zabalak eta ia jenderik ez.

Eta nola izan zen zuen arteko elkarretaratzea?

Meza garaian iritsi ziren. Ni, meza ematen. Ia-ia larrugorrian ziren tribu horretako guztiak, eta sartu zirenean kantuz hasi ziren eta bertan zirenak beste kantatu batekin erantzun, denak batera, izugarriko iskanbila sortu zen; talde bat oihuka kantari eta bestea fuertago. Inoiz atzenduko ez zaidan kantua: *Yama-Yama*. Hunkigarria izan zen elkarretaratzea, hunkigarria. Meza ematez utzi eta haiekin egon ginen orduren bat edo. Ondoren, meza bukatu eta opariak trukatu genituen.

Guk "shara" izena jarri genien tribu honetako kideei, baina gero ikasi genuen *Yaminahua* deitzen direla. Haiek bake bila etorri ziren, aspaldiko borroka kontuetan ez zirela heldu, bakea nahi zutela azaltzera. Ikusiko genuenez, betiko borroketan bukatu nahi zuten.

Nola dira orain indio horiek?

Herri bat egin zen horiendako. 250 bat lagun ziren orduan. Orain 400 lagun inguru bizi dira. Medikuntza, eskola...Eskolara joaten diren haurrak ehun eta hiru dira.

Horrelako gertakizunak, historiak, anekdotak...asko dituela erran digu Ignaziok baina guk denak ezin bildu.

Hiztegia



- SELVA: Hori azaltzeko oihan eta baso, biak ibili ditut.
- ALTZIÑA: Aurrera, Ultzaman. Batuan, aitzina edo aurrera.
- HEGAZKIN: Avión.
- EREMU: Tokia
- UGALDE: Ibaia edo ugaldea. Nafarroan beti hala izan da. Ibai ttikiei, berriz, erreka.
- HIRIBURU: Capital
- BITXI: Precioso, bonito.
- HARREMAN: Relación.
- HUNKIGARRI: Emocionante
- IBILTARI: Ambulante, viajero.

Euskararen komunitatearen webgune berriak



EUSKALERRAIARRATIA.EUS
IRUÑERRIKO EUSKALDUNEN AGERKARI DIGITALA
Martxoan hasieran estreinatuta zuten euskalerria.eus ataria, Tokikom eta Euskalerria Irratiak sortutako euskarazko agerkari digitala.

Komunitatea eta komunikazioa. Atzean dagoen gogoeta komunitateak komunikazioa behar duela da, are gehiago euskaldunen komunitatea fisikoki sakabanatuta dagoela ikusita. Plaza digital bat da hau beraz, euskaldunen Iruñerriko euskaldunen elkargunea.

Hedabidea baino gehiago, komunikabidea. Informazioa bi norabideetan mugitzea da helburua, agerkari ireki eta parte-hartzailea dela azpimarratzen dute.

Nafarroa ofiziala eta erreala. Informatiboki ere beren aletxo eskaintzea da helburua, Nafarroako panorama mediatikoa aintzat hartuz, plus informatiboa eskaintz euskaldunei.



ELAIDE.EUS
NAFARROAKO EUSKALDUNON SARE SOZIALA
Euskara Zerbitzua duten Nafarroako 32 toki entitatek sortu dute sare berri hau euskaldunak eta euskara ikasten ari direnak harremanetan jartzeko. Beste askoren artean, Basaburua, Imotz, Odieta, eta Ultzamako euskara zerbitzuak sortua da.

Zer da? Sare sozial bat da. Kanean eta Interneten euskal hiztun asko dabilta zaletasunak eta interesak partekatzen, jendea ezagutzen, gaurkotasuna komentatzen, planak egiten, euskara ikasten... Pertsona horiendako bilgune bat da Elaide eta euskara ikasten ari direnen bidelaguna.



ERRAN.EUS
MENDIALDEKO EUSKALDUNEN AGERKARI DIGITALA
Xorroxin Irratiak eta Ttipi-ttapa aldizkariak bat egin dute Tokikom-ekin batera euskarazko agerkari digital hau sortzeko

Euskaldunen komunikazio elkartrukea. Bi norabideetako komunikabide izan nahi du honek ere, horretarako "komunitatea" atalak garrantzia handia izanen du.

Multimedia plataforma. Xorroxin Irratia entzun eta Ttipi-ttapa aldizkariako albisteak irakurtzeaz gain, bideoak eta bestelako baliabideak eskainiko ditu.

Mendialde osoari zabalik. Proiektua Baztan-Bidasaldeko arrotik abiatzen da, baina egitasmoa zabalik gelditzen da Nafarroako mendialdea proiektu honen inguruan artikulatzeko.




BIAHIZPAKBIDEO.WIX.COM
ARITZ GOROSTIAGAREN WEBGUNEA
Bi Ahizpak bideo web gunea jaio berria da eta Aritz Gorostiaga Eskuin imoztarraren lanak erakusteko plataforma da.

Zergatik sortu zuen webgunea? Duela 10 urte baino gehiago bere lanbidean krisiak jo ondoren, autonomo egitea erabaki zuen. Kamera eta ordenagailua erosi eta orain edozein bideo muntatzeko aukera eskaintzen du.

Zer eskaintzen du? Interneterako bideoak, ezkontzak, antzerkiak, kontzertuak eta batez ere dokumentalak. Azken 15 urtetako lana ikus daiteke bere webgunean. Orain Mami y ase donde está el dinero dokumentala grabatzen ari da, eta uda aurretik estreinatuko du.

"Iraultza eta matxinada asko esan digutena baino herriratuagoak egon dira"



Gurera itzuli baino lehen, Galiziatik hasiko dugu oraingo istorioa. Laura Bugalho sindikalista transexualak udaberri honetan epaiketa bat izan beharko du. Arrazoa? Ustez etorkinei dokumentazio ilegala egiteagatik. Besteen ustez, politikarien eta mafien arteko ustelkeria borrokatzeagatik. Emakume hau Pontevedran bizi da gaur egun, eta Itziar Ziga idazle erreteriarren, "Malditas, una estirpe Transfeminista" liburuaren protagonistetako bat da. Azken urteetan, feminismoaren munduan oihartzun gehien izan duen egileetako bat da Ziga. Basaburuan liburua aurkeztuko du heldu diren astetan.

Hirian bizi zara. Posiblea da herrietan ere mugimendua sortzea?

Borrokaren deszentralizazioan sinesten dut. Iraultza eta matxinada asko esan digutena baino herriratuagoak egon dira. Historia ofizialak askotan kontatu digu iraultzak aurrera eramanez dituztela zentzu guztietan pribilegiatuagoak ziren pertsonak; gizonezkoak, zuriak, heterosexuak eta burgesak, eta hori ez da horrela. Landa eremuan izan dira iraultza asko; lurraren jabetzagatik egin direlako borroka asko.

Nire kasura begiratu, hiri handiak bilatzen joan naiz, baina azkenaldian hiri txikiagoetara eta, zergatik ez, herrietara, sustraietara itzultzen ari naiz. Itzulera hori, herri industrial batean jaio naizenez, landa eremua erromantiko baten idealizazioarekin lotua egon badaiteke ere, ondo sentitzen naiz herri txikietan nagoenean. Hiriak bertan bizitzeko askoz biolentoagoak dira.

Zer esango zenioke herri txiki batean bizi den eta genero edo sexualitate zalantza handiak dituen pertsona bati?

Landa eremua geroz eta irekiagoa da, orokorrean. Laura Bugalhoren kasura begira jarrita, genero operazio aldaketa egin zuen eta bere herritxoan bizitzen geratu zen. Lehen transexual gehienak hiri handietara joaten ziren, tolerantzia maila handiago baten esperoan.

Errazagoa dela diozu; halere, gizarteratzeko lekuak oraindik gizonen "esku" daude, demagun tabernak. Nola sozializatu daitezke leku hauek?

Nire ustez, gakoa sare alternatiboak indartzean dago. Tabernak ez diren sare horiek, tradizionalki emakumeek gehiago erabili dituzte. Sare horiek eraldatu, kontzientzia aldatu eta aktibismo bihurtzean, aldaketa gertatu daiteke. Horretaz gain, gure gizartea ez da betidanik horrela izan. Emakumeak kanporatuak izan ginelako.

Horri buruz, "Sexual Herria"n, nire aurreko liburuan, idazten dut. Laburbilduz, gizonaren babesean zegoen familia eredu heterosexuaren inposizioan datza. Inkisizio garaiko testuak irakurrita ikusten dugu nola emakumeak garai horietan gizaratean leku gehiago zuten. Emakume sare horiek indartzearen arrazoa iraganean dago.

Hirietan emakumeak kalera "apainduagoak" ateratzen dira. Landa eremuan errazagoa da, nolabait, estetika eta janzkera aldetik, modetatik at egoten?

"Malditas" liburuak 8 protagonista desberdin ditu. Nire ustez beste edozein liburuetan aurkitu ezin dituzun heroiak agertzen dira. Horietako 2 landa eremuan jaiotakoak dira, baina baten adibidea jarriko dizut: Sojourne Truthen kasuan, esklabo jaiotako emakumea zen, eta emakumeen emantzipazioaren alde eta esklabotzaren aurka borroka egin zuen lehenetarikoa dugu. Argazkira begiratu baduzu, gure etxeoandreen itxura du. Bere garaian "sufragistak" deitutakoen isekak bizi izan zituen, bere itxura zela eta. Beste hauek emakume zuriak, kalekumeak eta burgesak ziren. Lurra landu eta borroka aurrera eramanez emakumea zen, eta hori, nolabait, beste horientzat barregarria zen.

“Laguntzeko orduan, eskualdeko jendearen prestutasuna azpimarratuko nuke”

Korrika bezalako ekimena antolatzerako orduan, AEK-k sekulako lana hartzen dute gainean. “Lanpetuak baina gogotsu” ibili dira 19. euskararen aldeko Korrika hau antolatzen. Bitxia da nola pizten duen ilusioa euskaltzaleongan holako ekimenak. Urepelen hasi baino lehen, eskualdeko AEK-ko langile hau “oso animatua” sentitzen zen, hori bai, “lan pila egiten, estres handia jasaten, batez ere Korrika hasi aurreko bi asteetan”. Pozik dago eskualdean aurkitu duen parte-hartzearekin ere.

Nola erantzun du jendeak antolakuntza aldetik?

Egia esan, oso kontent nago, zonaldean Korrika batzorde polita sortu delako. Duela pare bat hilabete hamabostean behin elkartzen aritu gara. Eta martxoaren 20rako dena prest egongo da. Gaur bertan, demagun, eskualdean barna ibili gara kilometroak margotzen, eguraldi polita zegoela aprobetxatu dugu eta Belatetik Markalainaino guztia markatu dugu.

Ba al du misteriorik lan horrek?

Misteriorik? Batzuetan arriskutsua izaten da kotxeak eta kamioiak azkar datoz eta. Holakoetan izaten ditugu komeriak! Gaur, adibidez, gidari bat gelditu eta ea baimenik dugun galdetu digu... Denetarik dago, batzuk pozik hartzen dute Korrikaren alde lanean zaudela esatean, beste batzuek ez hainbeste...

Kilometroak zenbatu eta markatzeko metodoren bat al duzue?

Gutxi gorabehera egiten dugu. Ezinezkoa da beti-beti neurketa zehatz bat egitea, zuhaitz edo seinaleren bat behar baitugu gure kartela jartzeko. Erreferentzia bat behar dugu. Hori bai, ahal den zehatzen jartzen saiatzen gara.

19. Korrika dugu aurtengoa, edizio honetan zer azpimarratuko zenuke?

Oso batzorde polita sortu dela eskualdean. Bailara ezberdinetako jendea elkartu da; Imotz, Odietta, Anue, Basaburua, Atez, Ultzama... Jendeak gainera modu aktiboan parte hartu du; Korrika laguntzaileak saltzen, korrika lagunak egiten... Hori aipatuko nuke, laguntzeko orduan, eskualdeko jendearen prestutasuna eta jator-tasuna azpimarratuko nituzke.

Kilometroak ondo saldu al dira?

Inguru honetan, egia esan, ez dut esfortzu handirik egin behar izan. Oso-oso erraza da izan da salmenta egitea; jendeak deitzen ninduen kilometro eske, ingurune osoko jendea deitu gaitu. Euskal Herri mailara begiratuta datu positiboak dira, nahiz eta betikoa gertatu, badaude zenbait kilometro saltzen zailagoak direnak; Iparralden edota Nafarroako Erriberakoak kasu. Halere, holakoetan jendeak esfortzua egin eta beraien zonaldean erosi beharrean, holako zonaldeetan erosten dute haien kilometroa. Azkenean beti lortzen da ibilbidea betetzea.



Badaiteke eta Badezakegu



Euskaraz mintza daiteke, euskaraz bizi daiteke eta zuk eta nik euskararen alde egin dezakegu. Gaztea izan, zaharra izan, denok egin dezakegu zerbait. Edo zerbait baino gehiago.

Gaurkoan, Erripako *Etxekarteko* Leitzia Altuna Cueli ekarri dugu hona. Euskaraz Ultzamako eskolan ikasi zuen, baina ezagutu nuenean berehala antzeman nion eskolakoaz gain, berezkoa ere bazuela.

Euskaraz oso poliki ari zara, Letizia? Nola da hori?

Bai, gure gurasoek ez dakite, baina gure aitatxi Manuelek beti euskaraz aritzen gara. Bai, aitatxi eta amatxi Suarbeoak ditu baina ezkondu ondoren Olaguen bizi izan dira, euskara aspaldi galdu zuen herria. Manuel esne biltzailea izan da. Eta euskara beti maite izan du.

Eta zure aitatxi euskaraz gustura aritzen da zurekin?

Oso oso gustura. Ilusio handia egiten dio eta niri ere bai. Berarekin beti euskaraz aritzen gara ni eta nire anaia. Manuel aitatxi egin baldin badu zergatik ez ... denak gauza bera egin? Besarkada estu bat gure alderdiko aitatxi-amatxi guzientzat. Zuen esku dago gure euskara.

Agurrak, diosalak eta olesak (1)

-Eunon! In'da lo?

-Bai, zuk'e'bai?

-Bai, franko ongi. Auzoko zakur hoiek ez bale.

Gabe guzie aunke ta aunke aittu de!

-Ba... nik'e ongi. Estomaoko zakurrek ez bale.

Atzo pesta in giñun ta!

Egunon esan gabe ere, aski da, In'da lo? galdetzea. Edo ongi lo egin da?, edo, ongi lo egin duzue?

Eta erantzuna, esan bezala: Bai, zuk, hik, zuek ere bai?

Izaten dira etxeak non jaikitzerakoan agurrik egiten ez den. Jaikitzerakoan, elkarri begiratzearekin, dena esana dago: lo in dit, ongi niok eta laniako prest niok! Begirada batekin soilik, dena esana. Zein motzak, esanen duzu zuk, irakurle, baina ez pentsa, ez pentsa, okerrago da elkarri diosalik egin ez eta begietara begiratu

ere ez egitea! Okerrago denez!

Gure herrian baziren senar-emazte batzuk, elkarri begietara begiraten ez ziotenak bazkal garaian mahian parez pare jartzen ez ziren artio, goiz guztian hitzak konta ahal egin ondoren. Eta ez da batere harrizkeoa ere, gau guztia elkarren kontra pasa ondoren. edo zer? Hauek hitz egin gabe elkar ederki ulertzen zuten.

Eta senarra, tabernan ardo pixka bat edaten zuenean, dena txiste, zirto eta jolasa izaten zen. Aste guztian biltzen-biltzen joaten zena, lagun artean botatzen zuen. Horrelako gizona omen zen. Isil samarra aukeran, baina gizon baketsua eta bikaina.

Utz ditzagun agurren eta diosalen kontu hauek beste batean berriz ere ihardukiko dugu eta. Orain, ardo frexkotik topa egin behar dugu, hurrengorako utzi gabe. Ederra dago eta ardo hau, ederra dagoenez!

Epaiketa politikoen **aurrean** LIBRE

Azkenaldian, euskal militante politikoen aurkako epaiketa ugari ari dira izaten Auzitegi Nazionalen. Sententzien aurrean, auziperatuen inguruan babes sare bat sortuz joan da, Herri Harresiak bezala ezagutu ditugunak. Orain, LIBRE dinamikak abiatu dituzte auziperatuen eskubide zibil eta politikoko defendatzeko. Gurean, urtarrilean hastekoa zen baina urrira atzeratu den "Segurako mahaiaren" sumarioan auziperatuta dagoen Gorka Etxeberria aizaroztarraren inguruan batu da babesa.



2007ko urriaren 4an izan zen atxilotua Gorka Etxeberria beste 22 kideekin batera, Seguran egin zuten bilera batetik bueltan. Batasunaren mahai nazionala berriro osatu nahi izana leporatu zieten denei.

Garzon epaileak Segurako bileran atxilotuak "legez kanpoko aktibitateak" egiten ari zirela argudiatu zuen, eta EHAK (Euskal Herrietako Alderdi Komunista) eta EAE-ANV (Eusko Abertzale Ekintza) alderdiak jomugan jarri zituen. Baimenik gabe egindako operazioa zela salatu zuen EHAK alderdiak.

Urtarrilaren 12an hastekoa zen epaiketa, 35 lagun inputatuta zeudela. Ezin izan zuten epaiketa hasi, nahiz eta Madrileraino joan Guardia Zibilak euren abokatuak atxilotu baitzituen, Bilboko presoaren eskubideen aldeko manifestazioaren ondorengo "Mate" operazioan. Orain, urrira arte atzeratu dute epaiketa.

Gorka LIBRE dinamika

Gorka Etxeberriak leku askotatik jaso du babesa, Basaburuan eta baita kanpoan ere, eta bere inguruan babes sare bat eratuz joan ziren epaiketaren data hurbiltzen zihoala. Abokatuaren atxiloketak goitik behera aldatu zuen epaiketa eta honen kontrako kanpaina, eta urtarrilaren 12an, epaiketa hastekoa zen eta abokatuak atxilotuak izan ziren egunean, kontzentrazioa burutu zuten 50 lagun inguruk Jauntsaratsen.

Hortik aurrera, Basaburuak ematen dion babesa irudikatzeko amaraun sare laranja egin zuten, sare horrek babestuko duela azalduz, eta beraz, bizilaguna babesteko hautua hartuz. 30 lagunek irudikatu zuten LIBRE dinamikari hasiera eman zion amaraun sare hori.

Desobedientziaren kronologia: Herri harresiak, askeguneak eta LIBRE

2011ko otsaila: Izpuruako itxialdia. Atxiloketa sententziaren aurrean 5 gaztek ezkutatu eta Izpuruaren itxialdia egitea erabaki zuten. Atxilotuak zian ziren azkenik.

2012ko urtarrila: Ekaitz Samaniego gasteizta-

rraren atxiloketa. Espetxeratze agindua jasota ezkutatu eta Gasteizko balkoi batean agertu zen. Ehundaka manifestarik eserialdia egin zuten atxilotu ez zezaten.

2012ko urtarrila: Aurore Martinen atxiloketa saiakera. Baionan, bere etxean, lagunek herri harresia egin zuten gendarmeak ezin etxera sartu, eta atxiloketa bertan behera utzi zuten.

2013ko urtarrila: Oarsoaldeko gazteen eserialdia Donostian. Manifestazioa egin eta gero Maria Cristina hotelean kateatu ziren.

2013ko apirila: Donostiako Askegunea. Lehenengo askegunea, aste eta erdiz Bulebarreko plaza okupatu eta Ertzaintzak bortizkeriaz atera zituen banan-banan auziperatuak babesten zituzten gazteak.

2013ko maiatza: Ondarroako Zubi-harresia. Urtza Alkortaren inguruan herri harresia eratu zuten Ondarruko zubi zaharrean.

2013ko urria: Iruñerriko herri harresia. Nabarre-ria plazan eratu zuten Luis Goñiren inguruan. Polizia espainiarrak bortizkeriaz atxilotu zuen.

Epaiketa gehiago

40ak LIBRE. Segiko kide izatea egotzita 6 urteko espetxe zigorra eskatzen zuen fiskaltzak 40 gazterentzat. Denak absolutu zituzten.

36ak LIBRE. "Herriko tabernak" auzia bezala ezagutua. Batasunaren zuzendaritzaren espetxeratzea eta Herriko Tabernak ixtea eskatzen du fiskaltzak.

28ak LIBRE. Segiko kide izatea egotzita 26 gazteren espetxeratzea eskatzen zuen fiskaltzak. 12 kargurik gabe utzi zituzten, eta besteak sententziaren zain daude. Loiolako herri harresia egin zuten.

35ak LIBRE. Gorka Etxeberria epaitzekoa den sumarioa, "Segurako mahai" bezala ezagutua. Urrian hasiko da epaiketa.

Askapenaren aurkako epaiketa. Oraindik data-rik ez badago ere, laster izanen da, 5 kideen 6 urteko espetxe zigorra eta Askapena erakunde internazionalista legez kanpo uztea eskatzen duen eskaera fiskala iritsi baitzaie.

Josune Boscós, Erripako **bizilaguna** eta lore-terapeuta

Erripan sei hilabete eskas badarama ere, hasiera-hasieratik antolatu zuen Josunek kontsulta etxean bertan. "Bachen loreak" terapia ezaguna egin da azken urteetan. Terapia hau egoera emozional negatiboak (atsekabea, bakardadea, beldurra...) gainditu eta gaixotasunak saihesteko ustez balio duten 38 lore esentzien multzoa da, Edward Bach ingeles medikuak asmatu zuena. Aurreiritziak alde batera utzi eta berarekin hitz egin dugu horri buruz.



Nola hasi zinen honekin?

Hasieran bezero edo paziente gisa hasi nintzen, baina gero pentsatu nuen etxean botikin gisa erabiltzea niretako eta nire animalientzako.

Zure ustez, funtzionatzen du?

Bai, argi dago, ez dago ez sekretu ez plazeborik. Sumatzen da. Animaliekin eta haur txikiekin sumatzen da garbien eragina. Landareekin ere ondo funtzionatzen du. Aipatutako horiek guztiek ez dute inolako defentsa-mekanismoirik ezta aurreiritzirik.

Ze animaliarekin frogatu duzu?

Etxean bi txakur eta katu bat ditugu eta horiei egunero ematen dizkiet tanta batzuk. Nik ere hartzen ditut. Beldurra eta agresibitatea tratatzeko laguntzen du. Garbi ikusi dut haiengan duten eragina; batzuetan bost minutu besterik ez dute behar sumatzeko. Adibide bat emango dizut; txakurra betidanik izan da ortotsen beldur. Mahai baten azpian sartzen da ortotserauntsia dagoenean. Tantak hartu eta minutu gutxitan, zituen dardarak desagertzen dira.

Zer esango zenioke terapia honek konfiantza ematen ez dion pertsona bati?

Lehenik eta behin aurreiritzirik gabe hartzea gaia. Terapia naturala da. Belarrak betidanik hartu izan ditu gizakiak. Kasu honetan emozioak orekatzeko laguntzen digute lore horiek. Gure izaera eta

jokaera aldatu nahi badugu lagunduko digute. Lore horien terapiaek emozioak orekatzeko jokamolde horiek aldatzen lagunduko digute.

Baina aldatu nahi baduzu, esfortzu bat egiten ari zara, alde aurretik baldintzatuta zaude...

Garbi izan behar dugu prozesu terapeutikoa dela eta bertan ni laguntzailea besterik ez naizela. Terapeuta gisa bitartekaria naiz. Horretaz gain, galderen bidez eta hitz eginez laguntzen ahal dizut.

Pote txiki hauetan loreak daude? Azalduko diguzu nolakoa den produktua?

Alkoholean sartuta daude lore hauek, eta behar adina nahasten ditut, bilatu nahi den eraginaren arabera. Batzuetan lore batzuk nahasten ditut, beste batzuetan beste batzuk. Lore bakoitzak eragin desberdina izaten du. Bi sistema desberdinekin lan egiten dut; Bach eta Kalifornia deitutakoak. Lehenengoa ezagunagoa da, eta bigarrenean lore gehiagorekin egiten da lan. Horrela deitzen da bere autoreak bertakoak direlako.

Etxez etxe zoaz ala jendea hona dator?

Normalean hementxe hartzen dut jendea. Oso urrun baldin badaude, internet bidez ere egin daitezke terapiak; "Skype" programa erabiltzen dit horretarako, "telekonferentzia" egiten dugu. Haiek belar-denda batean erosten dituzte tantak eta aldi berean egiten dugu.

Liburuaren eguna apirilaren 23an

Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko helburuz hainbat jolas eta ekintza antolatu dituzte Larraintzarko liburutegian liburuaren nazioarteko egunean. Liburuzain berriaren estreinaldia izanen da, langile berria baitu liburutegiak, Oskar Diego burlatarra.



Oskar Diego, Larraintzarko liburutegian

Urtero bezala, nazioarteko liburuaren eguna ospatuko dute Larraintzarko liburutegian. Bereziki haurrentako tailer eta jolasak eginen dituzte, hauengan irakurtzeko zaletasuna zabaltzeko, baina adin guztietako jendearendako dago egina deialdia.

Berrikuntza garrantzitsua dauka gainera liburutegiak, Ultzamako udalak eskaintzen zuen lanpostua betea baitago jada; Oskar Diego Lopez da liburuzain berria, eta gogoz hasi du abentura, biltegia berritzen lan handia dagoenaren jakitun. Burlatan bizi da, eta arratsalde aritzen da Larraintzarren, irakurleei laguntza eskaini eta beharrezko diren aldaketak egiten.

Liburutegia gustatu zaio Oskar Diegori, "lekua ederra da, eta ongi dago liburutegia; hala ere, berrikuntza zenbait behar dituela dio: "eleberri asko daude, eta berriak gainera, baina gainontzeko materiala nahiko zaharkituta dago, beste liburutegi batzuekin alderatuta puntu bat falta zaio". Hori izanen da bere lehen lana, zer falta den ikusi eta aurrekontua eskatuz liburu bilduma berritzea. Horretan dabil jada burubelarri, zerrendak eginez eta zerrenda zaharrak digitalizatzen. Alde horretatik ere berrikuntza behar dela dio, "interneten egon beharra" nabarmendu du.

Tailerrak eta ginkana liburuaren egunean


Lan are zailago bat ere badu, ez baita xamurra irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea, baina kultur teknikariaren laguntzaz saiatzen ari da. Horretarako liburuaren nazioarteko egunaren harira zenbait jarduera antolatzea erabaki dute. Haur txikientzat bi tailer egonen dira: alde batetik, babesorriak egiten ikasiko dute, bakoitzak bere modura egin dezan, eta eurek irakurritako liburuetan ere erabil ditzaten. Bigarren tailerra komikiena izanen da, haurren literatur generorik erakargarriena. Helduagoendako, berriz, ginkana bat egonen da liburutegian bertan, emandako aztarnak interpretatuz liburuz liburu aurrera egingo dute. Arratsaldeko 18:00etan hasita, 19:30 bitartean eginen dira ekimenak.

Liburutegiaren etorkizunari begira

Beste aukera batzuk ere baditu buruan Oskar Diegok. Lehen zegoen irakurle taldea berriz hasteko asmoa dauka, lehenago zaletasuna bazegoelako, eta ongi dinamizatuz gero etorkizuna izan dezakeen egitasmoa izan daitekeela dio.

Bitartean, ordea, bisita gutxi jasotzen ditu liburutegian, eta pertsona heldu gutxi gainera. Arrakasta gehien ordenagailuek daukate, eta liburuei dagokienez ipuinak dira maileguan gehien hartzen direnak, "marrakzi asko dituztenak" Oskar Diegoren esanetan.

Antropologo bat Marten liburua



Honakoan liburu bitxi bat aurkezten dizugu. Ez da fikziozko eleberria ezta bere autorea idazlea ere; behintzat ez da soilik idazlea, neurologoa ere bada. Oliver Sack-ek idatzitako "Antropologo bat Marten" obra proposatzen dizuegu, narratibaren eta kasu klinikoaren erdibideko puntuan dagoena. Ez zaitetz izutu, ez da medikuntza liburu astuna: pertsonak dira autore honi gehien interesatzen zaizkionak.

Gaixotasunen botere sortzailea da liburu honen gaia. Xelebrea, ezta? Sack-en arabera, eritasun batzuek gure ezkutuko gaitasunak azalertzera derri-

gortzen gaituzte, gaixo egonda modu adaptiboan jokatu behar baitugu gure ingurura moldatzeko. Trebetasun horiek modu harrigarrian garatu daitezke kasu batzuetan. Honela, gizakia ulertzeko modua zabaltzen da, erabiltzen ez ditugun baina hor nonbait dauden abileziez jabetzen garelako. Uste duguna baino gauza gehiago lortzeko gai garelako agerian geratzen da liburu honetan, bizirauteko estrategia anitz dituen gorputzen jabe gara.

Zazpi kasu kliniko deskribatzen dira "Antropologo bat Marten"n. Garunaren funtzio ezohikoaren ondorioz sortutako gaixotasunak agertzen dira... edo hobe esanda, gaixotasun horiekin BIZI diren pertsonak. Bai, letra larriz; izan ere, bakoitzak bere mekanismoak garatu izan ditu eta bere gaixotasunari abantailak ere aurkitu izan dizkio. Sacks-ek zorrotasun kliniko handiz eta onberatasun handiagoz tratatzen ditu kasuok, gaixoak ikusteaz haratago pertsonak ikusi eta maisuki deskribatzen dituelako.

Koloreak ikusteko gaitasuna galdu duen margolaria, ikusmena berreskuratu duen fisioterapeuta, biologiaren alorrean karrera bikaina garatu izan duen irakasle autista... obra honetan aurkituko ditugun istorio batzuen adibideak dira hauexek. Haien familia nahiz maitasun harremanak, lan testuinguruak eta haien gaixotasunekiko sentipenak nolakoak diren jakin nahi al duzu? Irakur ezazu bada eta ase ezazu zure jakin-mina!

ZIO bilduman argitaraturiko obra dugu hau, autore honen euskaratutako obra bakarra. Estilo arinean dago idatzita, interesgarria izateaz gain gozagarri izatea ere bilatzen baitu. Irakurtzeak merezi du, gaixotasun eta osasunaz, garenaz eta izan gintezkeenaz hausnartzeko aukera paregabea eskaintzen baitu.

ESNE KOLOREKOA: "Urteko Liburua" saria jaso du



Nell Leyshon, idazlea

Mary Ingalaterrako baserri batean bizi da bere familiarekin 1830. urtean. Ilea esne kolorekoa du eta hanka batean akats bat jaitzez, baina une batez familiako kondena-

tik ihes egitea lortzen du gaixo dagoen bikarioaren emaztea zaintzeko neskame bidaltzen dutenean. Orduan, irakurtzen eta idazten ikasteko aukera izanen du, eta horrela hasiko da liburutegian marra beltz batzuk baino zerbait gehiago ikusten. Hala ere, itza-

len mundutik ateratzen den heinean, ohartuko da argiak are itsugarriagoak izaten ahal direla; horregatik, Maryk bere historia kontatzea beste aukerarik ez du izanen, idatzitakoan sosegua aurkitzeko.

Oinaze, miseria eta borroka istorioa da. Istorioko hunkigarria da gertatuko dena aurreikusten ahal bada ere. Indarkeria erantzun bat da, hainbeste gehiegikeriaren aurrean, aukeratzeko gaitasun ezaren aurrean: indarkeria da askatasun aztarna izan daitekeen bakarra.

Benetan, aspaldi ez nuen liburu honek bezala pentsarazi didan libururik topatzen; halako punturaino harrapatu nau, ezin izan diodala irakurtzeari utzi bukatu arte. Liburu hau irakurtzea gomendatzen dut irakurtzen erraza izateaz gain, hunkigarria delako.



2015eko otsaila. Gure alderdian, otsailean izan ziren jaiotzak eta heriotzak:

JAIOTZAK

ANUE
Aritzu

Ixone Reta Iraizotz, Ramorena (Erramonea)an 2015.02.23an, Roberto eta Josuneren alaba.

Etsain

Olatz Ronkal Ziganda, Etxeberrian, 2015.02.28an, Iñigo eta Saioaren alaba.

BASABURUA

Aizarotz

Julen Puerta Ripa, 2015.02.24an. Erdiko karrikan, 10.ean.

Jesus Manuel eta Nerearen semea.

Berute

Eneko Navarro Villegas, 2015.02.01ean. Behetxonean, Ioseba Estebe eta Alejandraren semea.



Uxue eta Ixone



Olatz



Julen eta Hegoi

ZORIONAK JAIOBERRIEN GURASOEI!

IN MEMORIAM



Joakin Perez Paternain, Egozkueko *Bernarteko* nagusia joan zaigu, ia-ia ustekabeen. Udazkeanean hartu zuen errukigabeko gaitz batek; eta, denborarik gabe, mundu honetatik joan den otsailaren 16an alde egin digu betiko Joakainek.

Betiko diogu, baina ez da hala izanen, herritar eta adiskideek gogoan izanen baitute eta bihotzean eramanez beti, Yuskonean jaiotako eta ezkontzaz Bernatenera joan zen egozkuear hau.

Gizon langilea, xaloea, solasturia, herritarren artean maitatua; joan egin zaigu gizon eskuzabal eta irribarretsua, hor bere erretiroan hain gustuko zituen etxaldeko lanetan, batez ere bere baratze ederrean ezin alaiago ari zenean, oraindik sasoiko.

Barazkiak opariz, bere familiakoek eta adiskideek, izaten genituen, baina bere oparirik ederrena, bere begitarrea, irribarrea eta presentzia ez dugu ikusiko eta izanen; hala ere, bai betiko izanen gure baitan. Goain Bego:

Bernart, Egozkueko herritar maitea eta Marta gure adiskidearen atte. Egun handira arte!

DRAGATZEAK ETA UHOLDEEN ARAZOAREN KONPONBIDEA



Aingeruiturri ibaian egindako lanen bilakaera.

“Ibaiak zikinak daude” izaten da ibaien ubideak dragatu eta garbitzeko argudioa. Urtetan, administrazioek holakoak egin edo onartu dituzte uholdeen aurrean ondareak eta pertsonak babesteko aitzakia logiko eta laudagarriarekin, baina, askotan “gaurko onura biharko kaltea” izateaz gain, ur-ekosistemetako eta ur-bazterretako ingurumenari eragin diote. Hala ere, dragatzea gaur egun konponbide erraz bezain zabaldua da.

Hainbeste onura ekartzen diguten ibaiak kaltetzeaz aparte, dragatzeek sedimentuen zirkulazioari ere eragiten diete, eta erosio eta sedimentazio prozesu guztiak oztopatzen dituzte. Ibaia dragatzeak ondorio kaltegarriak izaten ditu epe laburrean ibaiak ura husteko duen gaitasuna handitzen baitu, eta horrek ibai ondoko herrietara lasaitasuna ekartzen du, udalerrri horietako lurralde-antolamendua aldatu beharrik izan gabe.

Kontuan hartu behar dira gestio-praktika horiek izaten dituzten benetako eragin sozialak eta ingurumenaren gainekoak. Ibaieretako okupazioa finkatu eta are handitu egiten da, pertsonak eta ondare materialen babes-segurtasun faltsua sortzen da, balio ekologiko handiko eremuak suntsitzen dira, eta ez da bat etortzen Europako arauak agintzen dutenarekin ez eta zientifikoek adostutakoarekin urak hartzen ahal dituen zonetako ingurumen- eta lurralde-kudeaketari buruz.

Ez dugu atzendu behar klima-aldaketaren ondorioz muturreko fenomenoak sortzen direla: lehorteak eta uholdeak nonahi eta noiznahi gertatuko dira. Zorionez, herritarrek gero eta ozenago eskatzen diete kudeatzaileei ibaiak egoera onean izan daitezzen eta uholdeen arazoaren aurrean konponbide iraunkorrak bilatu ditzaten.

Uholde arriskua ebaluatzeari eta kudeatzeari

buruzko 2007ko urriaren 23ko 2007/60/EE Zuzentarauak esaten die administrazioei nola lan egin behar duten uholdeek eragindako kalteak saihesteko. Zuzentarau horrek ohartarazten du “uholdeak fenomeno natural saihestezinak direla”: ez dira uholdeak saihestu beharrekoak haiek eragindako kalteak baizik. Horretarako, zuzentarauak hiru lan-ildo ezartzen ditu: prebentzioa, adibidez, urak hartzen ahal dituen zonetan ez erakitzea; bizilagunak prestatzea, jarraibideen bitartez, uholdeak gertatuz gero nola jokatu behar duten jakin dezaten; eta, babestea, proposamen batekin, “ibaiei espazio gehiago ematea (...) alubioi ordokiak mantenduz eta berrezarritz”.

Ez da ibaia gure espazioak hartzen duena. Guk okupatu dugu bere espazioa duela urte batzuk, eta, orain, berak erreklamatzeko digu bere espazioa.

Zorionez, Nafarroako sare hidrografikoaren zati handi batean apustua egin da gure ibaiak errespetatzeko eta dagokiena itzultzeko lan-ildo baten alde. Adibide gisa, Arga, Aragoi eta Arakil ibaietako behe zatietan egiten ari diren lanak, lubeten altuera jaitziz eta espazioak berreskuratuz uholdea eta ibarreko erabilera bateragarriak diren zonetan eta uholdeak saihesteko hiri-lurretan eta erabilerak suntsigarriagoak direnetan.

Gurean, nabarmentzekoa da Odietako Udalaren ekimena urtetan ildo horretatik lan egin batu, bere udalerriko ibaien (Ultzama, Arakil, Gaskualde, Aingeruiturri, eta abar) arazoak aztertuz. Lehenbiziko fase batean, batez ere basoko landaretza kudeatzeko lanak egin zituzten ibar eta ibaiertzetan —sasiak kentzea, garbitze selektiboak, inausketak, tapoiak kentzea— beste lan batzuekin batera, hala nola, ibaiertzen perfila eta erriberak berrezartzea et haltzadiko landaretza berreskuratzea. Bigarren fase batean, ezpondak berreraikitze lanak, bio ingeniari bitartez: egitura biziak, adar ohantzeak, tunicaje delakoak, metatzeak eta ziriztatzeak.



ZORIONAK ZUEI!



LANBIDE HEZIKETA
 ADMINISTRATZITZA, MEKANIZATUA, SOLDADURA, TEKNOLOGIKO-ZIENTIFIKORAKO PRESTAKETA

LAN EGIN GUSTUKO LANBIDEAN IES ELIZONDO BHI

AURREMATRIKULATU APIRILAREN 13tik 17ra
ieselizondobhi.educacion.navarra.es/web

VENTA DE LEÑA A DOMICILIO



☎ 635 90 91 95

✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua



Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu



DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL: 678 623866

argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
 fatxadak zaharberitzea
 iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
 kalitatea eta garbitasuna
 aurrekontuak konpromisorik gabe



Internet etxean arazorik gabe!

22 Mb-erainoko abiadura, hilean 45,48€ ordainduta. Internetera konektatu, zure etxearen kokapena arazoa izan gabe.

- Telebista antenen instalazioak eta konponketak.
- Canal Plus-eko banatzaileak eta instalatzaileak. Eskaintza bereziak bezero berrientzat.
- Atezain automatikoak.

Tel: 848 410 500

WWW.SENATEL.ES

info@senatel.es



EGUTEGIA 2015

Aurtengo Gala: Emakumeek Basaburuan

Basaburuan, emakumeen errealitatearen azalpena eta gure herri badiak eragindako errealitateak

Topik: Urtarril 31 arte
Maz: ingabaki@gmail.com

anima zaitetze
www.animazaitetze.com

AZAROAK 25

EMAKUMEAK AURKAKO IRABAZKERRIAREN KONGRESUAK
RABAZKERRIAREN EGUNA

Aurre egiten badlogu, desagertuko da

Basaburuan Basandereak

ARBAZAKI ERAKUSKETA

gure basaburu emakumeen omenaldi sinesen
hau emakumeen ezkerreko ezkerreko aldetik

Dia de la Mujer Rural

landa eremuko emakumeen eguna
urtarril 13 larunbata 1900 eta Basaburuko kultur etxean (Alzarotze)

ludoteka zerbitzua: izanen duzu

Emakumeon Eguna

TOPIKAK:

- Hizaldia:** "Aburuko emakumeen errealitateak"
- Afariak:** Asteleko (10:00-12:00) guztia bertan
- Antzerkia:** Jantzerik gabeko antzerkiak
- Antzerki-Teatro:** "Las Superheroinas" Trokole Larraitzarrena Zentro Zibilaren 7. aterpean

PuLunPe

140. ZeNBaKia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO GIZON ETA EMAKUMEON ALDIZKARIA

PESTAK BASABURUAN

AGRAZAKIETAKO LEKIAKETA

"HOLA BAZKERRIAREN BIRBIRUEN LURRA BASABURUAN"

¿Oinezkoen errealitatea eta irudia? ¿Basaburua?

Basaburua

Basaburua errealitatearen azalpena eta gure herri badiak eragindako errealitateak

Antzerki, aiaz estós a tiempo de presentar sus fotografías

25

nahiko da

idazkariaren azalpena

Basaburua

Basaburua errealitatearen azalpena eta gure herri badiak eragindako errealitateak

Basaburua

Basaburua errealitatearen azalpena eta gure herri badiak eragindako errealitateak